

# CAMPAÑA CARITAS

**“QUIERO TRABAJAR”**

***29 de septiembre de 2013***

---

## ***MONICION de entrada:***

Estamos reunidos para celebrar el misterio de Dios-Amor encarnado en Jesucristo como camino, verdad y vida. El es el que nos convoca en el Espíritu para que vivamos como hermanos y construyamos un mundo en el que reine el bien, la verdad y la paz.

Hoy Caritas, que es la Iglesia que construye la vida desde el amor al prójimo, nos apremia ante el grave problema del paro. No es una cosa nueva. Lo llevamos haciendo desde hace años. Somos sensibles a la situación de tantos que no pueden trabajar. Quieren y no pueden. No es que no quieran como algunos dicen, es que estamos padeciendo una gravísima lesión en nuestra dignidad humana, la de la falta de puestos de trabajo. No pueden trabajar.

Tenemos que compartir con los que peor lo están pasando. Tenemos que dejarnos afectar en conciencia y actuar con un corazón misericordioso para que, los más necesitados y sus familias sientan que estamos apoyándolos y que colaboraremos con ellos en todo lo necesario

## ***PERDON***

---

La misericordia de Dios es entrañable y llega a todos. Nosotros lo acogemos y lo agradecemos a la vez que, nos comprometemos a vivir en consecuencia con los más desfavorecidos.

**Señor, ten piedad. Cristo, ten piedad. Señor, ten piedad**

## ***MONICION A LAS LECTURAS***

---

Las lecturas de hoy se centran en las riquezas. El profeta Amós denuncia la vida que llevan los ricos (1º lect.). El Evangelio subraya lo que dice el profeta y afirma que no se puede ser amigo de Dios en la eternidad si ahora se deja morir al propio hermano en la miseria (Ev.) Pablo invita a que aprovechemos esta vida practicando la justicia y la piedad, el amor y la fe, para entrar en la vida eterna (2º lect.).

**Amós 6, 1<sup>a</sup>.4-7**

**Timoteo 6, 11-16**

**Lucas 16, 19-31**

## ***HOMILÍA***

---

- Una de las características más sobresalientes de nuestra sociedad es la desigualdad reinante en la humanidad y en el interior de cada país, comunidad y pueblo.
- Desde una chabola las cosas se ven de manera muy distinta a como se ve la vida desde un palacio, un hotel de veraneo o una residencia. La situación es muy distinta si uno está en paro, a la de otro que está derrochando y sumergido en el más puro consumismo. Y todo esto ocurre también entre nosotros.
- En los profetas y en el Evangelio está muy claro lo difícil que es salvarse desde la riqueza. Las palabras de Jesús en el evangelio describen la sociedad no sólo de aquel entonces, sino la de hoy también.
- Podemos decir que las riquezas son de suyo, indiferentes, pero ejercen una poderosa seducción y se convierten fácilmente en ídolo.

- La pobreza, de por sí, no es ninguna virtud, pero, cuando se acepta por el Reino de Dios (reino de paz y justicia, reino de vida y verdad), es camino que lleva a la vida eterna (vida plenificada).
- Tampoco podemos establecer una especie de dicotomía entre pobres y ricos, como si estos fueran los malos y aquellos los buenos. No. La pobreza no condujo a Lázaro al seno de Abrahán, sino su actitud ante ella. Las riquezas no impidieron al rico entrar en el seno de Abrahán, sino su egoísmo y su poca solidaridad con el prójimo.
- Hay un abismo, el abismo del egoísmo y de la presunción, de la arrogancia y de la falta de conciencia que no deja oír el rumor silencioso de la pobreza (el paro, la exclusión...) que llama a la puerta de la casa rica. Es la parálisis espiritual que incapacita para acoger la llamada a la solidaridad. Tenemos que insistir en este aspecto.
- En Gipuzkoa hemos llegado a la preocupante cifra de 50.000 parados y cada uno tiene su drama personal, su historia concreta, su familia, su crisis.
- Los que más sufren el paro, entre nosotros, son los más vulnerables, los más débiles y los que tienen trabajos más precarios: los inmigrantes, las familias monoparentales, las parejas jóvenes... Y también las pequeñas empresas y los autónomos con menores recursos.
- Cuando decimos que estamos en crisis hablamos de muchas cosas, y a veces son cosas tan complejas que nos cansan con tantas historias y hasta podemos aburrirnos con estas cosas y desencantarnos de todo. Es nuestro riesgo. No podemos caer en la desesperanza ni en la resignación. Somos creyentes en el misterio de un Dios-Amor que nos quiere y nos cuida y nos da fuerza para que caminemos juntos por el sendero de la fraternidad.
- El paro es la expresión más clara y dolorosa de la crisis. El desempleo es la situación vital que origina mayor zozobra y sufrimiento en las personas y

las familias. No tener trabajo es algo muy grave. El trabajo dignifica a las personas y hace posible su desarrollo humano con una vida autónoma y equilibrada. El empleo crea las condiciones mínimas para poder realizar un proyecto de vida familiar y personal en libertad. Es un derecho fundamental y una necesidad imperiosa.

- El papa Benedicto en su encíclica “la caridad en la verdad” dice así: “*estar sin trabajo durante mucho tiempo, o la dependencia prolongada de la asistencia pública o privada, mina la libertad y la creatividad de la persona y sus relaciones familiares y sociales, con graves daños en el plano psicológico y espiritual*” (nº 25).
- El empleo es algo fundamental porque además de generar ingresos económicos necesarios para vivir, también tiene un componente de relación, de participación social, de saber que estamos aportando a la sociedad, y cuando se pierde genera el efecto contrario, el de quedar al margen y no valer para nada. Tenemos que evitar todo esto.

### **Nuestras preocupaciones**

- Sobre todo nos preocupan las personas que teniendo más de 45 años están en paro. Nos preocupan las mujeres con hijos a su cargo. Y los jóvenes con una tasa de desempleo del 57%. Estamos perdiendo una fuerza humana y social enorme de personas que ven que en su país, en su sociedad no tienen alternativa y se les cierran todas las puertas. Nos preocupan, también, los niños que están viviendo situaciones de angustia, de privación, de ocultamiento.

### **Nuestras ofertas y propuestas**

- Nosotros estamos para acoger, para informar y para orientar en sus necesidades laborales y económicas. Siempre que se pueda, queremos formar para el empleo y apoyar en el autoempleo. Tenemos medios para prestar servicios de intermediación laboral y promoción del empleo para personas vulnerables con iniciativas de economía social.

## **Nuestras conclusiones**

- Tenemos que mirar a los parados con otra mirada a la habitual, en muchos: los desempleados desean, quieren, y prefieren trabajar a vivir de ayudas sociales y ser una rémora social. Debemos visibilizar las capacidades de los desempleados y darles la dignidad que se merecen. Debemos transmitirles ánimo y esperanza.
- Como hemos repetido, estar en paro, sea de corta o de larga duración, desestabiliza a las personas que lo sufren. Además de los problemas económicos, que en sí son graves, genera angustia y afecta al estado emocional y la autoestima y muchas veces es una fuente permanente de conflictos familiares.
- La creación de empleo no es lo más fácil en este momento. Con la desaparición de gran parte del tejido empresarial formado por pequeñas y medianas empresas y el retramiento del consumo, se hace difícil desarrollar iniciativas de autoempleo individual y colectivo. Debemos animar a los emprendedores, los empresarios y las personas con capacidad e iniciativa que impulsen fórmulas de economía social adecuadas a esta situación de crisis social.
- La fe que nos anima en Jesucristo es un motor vital que impulsa a servir al que sufre en su dignidad de hijo/a de Dios, desde la perspectiva de un hermano que mira la vida desgarrada de tantos que lo están pasando peor que uno mismo y, toma conciencia de la necesidad de ayudar a superar los problemas más graves, en aras a una fraternidad realizada sacramentalmente en la Eucaristía. Pongámonos delante de Dios y escuchemos el clamor de los que quieren y no pueden trabajar.

---

## **ORACIÓN DE LOS FIELES**

---

**Presentemos nuestras plegarias al Padre eterno, hoy especialmente por intercesión de los santos arcángeles y en atención al problema del paro que Caritas nos propone.**

- Por la Iglesia entera, los fieles seguidores de Jesús, por el papa Francisco, por nuestro obispo José Ignacio, por los curas, los diáconos, los religiosos/as, los misioneros, sus colaboradores y los responsables de nuestras comunidades y servicios. *Roguemos al Señor.*
- Por los jóvenes que viven en la inseguridad de no encontrar un trabajo estable y digno; por las parejas que no pueden casarse por problemas económicos y por todos aquellos que sufren las consecuencias del paro prolongado. *Roguemos al Señor.*
- Por todos los que en Gipuzkoa colaboran de alguna manera en los servicios de Caritas. Voluntarios, trabajadores, benefactores y aquellos que se sienten cercanos a los problemas y las necesidades de tanta gente que se acerca a nosotros. *Roguemos al Señor.*
- Por nosotros aquí presentes, por nuestras familias, amigos y compañeros de trabajo. Por aquellos que saben que pueden acercarse a nosotros sin miedos ni complejos porque serán acogidos y respetados en sus derechos y necesidades. *Roguemos al Señor.*

**Escucha Padre nuestra oración. Haznos generosos en el compartir nuestros bienes y nuestras vidas, para que así seamos dignos de la gloria eterna. Por Jesucristo nuestro Señor.**

#### **COLECTA**

---

El dinero que recojamos en la colecta de hoy se dejará en manos de Caritas para que la Iglesia de Gipuzkoa pueda ayudar a paliar los efectos más negativos que está teniendo el paro entre nosotros.

#### **GESTO DE LA PAZ**

---

Nuestra paz es la del Señor Jesús que murió en defensa de la verdad, la libertad, el perdón y el amor. En esa paz nos encontramos todos con los que padecen injustamente exclusión o extrema necesidad. Nos damos la paz como compromiso de vida nueva.

#### **ORACIÓN FINAL**

---

Dispuestos a compartir el amor de Dios para con los pobres y desamparados, hermanos y hermanas, podéis ir en paz.

---

# CARITAS KANPAINA

***“LANA HELBURU”***

***2013ko irailaren 29a***

## **SARRERA:**

Jesukristorengan haragituriko Jainkoa-Maitasunaren misterioa ospatzeko bildu gara, bera baita bidea, egia eta bizitza. Bera da Espirituan biltzen gaituena, anaia-arrebak bezala bizi gaitezen eta ongia, egia eta bakea nagusi diren mundua eraiki dezagun.

Hurkoarekiko maitasuna oinarri harturik bizitza eraikitzen duen eliza da Caritas, eta, alde horretatik, gaur premiazko egoera bati buruz ohartarazteria dator, langabeziaren arazo larria dela-eta. Ez da oraingo kontua. Urteak daramatzagu arazo horren aurrean kezka adierazten. Sentiberak gara lanik ez duten hainbeste eta hainbeste pertsonaren egoeraren aurrean. Nahi dute eta ezin dute. Batzuek diote ez dutela nahi, baina ez da hori; arazoa da gure giza duintasunaren urraketa larria jasaten ari garela, lanposturik ez izatea urraketa oso larria baita. Ezin dute lan egin.

Elkarbanatu egin behar dugu egoera larrienean daudenekin. Kontzientzian eragiten utzi behar dugu eta bihozbera jokatu behar dugu, txiroenek eta haien familiek senti dezaten babesten ari garela eta behar den guztian lagunduko diegula.

## **BARKAMENA**

---

Jainkoaren errukia bihotzetikoa da eta guztiengana iristen da. Guk harrera egiten diogu, eta eskertu, eta, aldi berean, konpromisoa hartzen dugu txiroenekin modu berean jokatzeko eta horren arabera bizitzeko.

**Erruki, Jauna. Kristo erruki. Erruki, Jauna.**

## **IRAKURGAIEI BURUZKO OHARRA**

---

Gaurko irakurgaien ardatza aberastasuna da. Amos profetak salatu egiten du aberatsen bizimodua (1. irakurgaia). Ebanjelioak azpimarratu egiten du profetaren esana eta berresten du ezin dela Jainkoaren lagun izan betierekotasunean baldin eta orain anaia bera miserian hiltzen uzten bada (Eban.). Pablok dei egiten digu bizitza hau balia dezagun justiziaren eta errukiaren, maitasunaren eta fedearren bidetik betiereko bizitzan sartzeko (2. irakur.).

**Amós 6, 1.a.4-7**

**Timoteo 6, 11-16.**

**Lukas 16, 19-31.**

## **HITZALDIRAKO**

---

- Gizaterian eta herrialde, erkidego eta herri bakoitzaren barnean nagusi den desoreka da gure gizartearen ezaugarri nabarmenenetakoa.
- Txabola batetik gauzak beste modu batera ikusten dira; izan ere, jauregi batetik, oporretako hotel batetik edo egoitza batetik bizimodua oso desberdina da. Langabezian dagoenaren egoera eta kontsumismo betebetean murgildurik dirua parrastan xahutzen ari denarena guztiz bestelakoa da. Eta gure artean ere gertatzen ari da hori guztia.
- Profeten esanetan eta idatzietan eta Ebanjelioan oso argi adierazten da zeinen zaila den oparotasunean bizita salbatzea. Jesusen ebanjelioko hitzek garai hartako gizartea ez ezik gaur egungoa ere nolakoa den azaltzen dute.
- Esan dezakegu aberastasunak, bere horretan, ez direla ez txarrak eta ez onak, baina ahalmen limurtzaile oso handikoak direla eta oso erraz bihurtzen direla gizakien gutizia eta grina.

- Txirotasuna, berez, ez da inolako bertutea, baina Jainkoaren Erreinuaren alde onartzen denean (bakearen eta justiziaren eta bizitzaren eta egiaren erreinuaren alde), betiereko bizitzara (bizitza betera) iristeko bidea bihurtzen da.
- Txiroen eta aberatsen arteko dikotomiarik ere ezin dugu sortu, hauek onak eta haien gaiztoak; ez, ez da hori. Ez. Lazaro ez zuen txirotasunak eraman Abrahanen altzora, pobreziaaren aurrean agertutako jarrerak baizik. Aberatsa ez zen aberastasunen eraginez geratu Abrahanen erreinutik kanko, bere berekoikeriaren eta hurkoarekiko elkartasun eskasaren ondorioz baizik.
- Bada amildegi bat, berekoikeria eta handikeriarena, harrokeria eta kontzientziarik ezarena, txirotasunaren (langabezia, bazterketa...) zurrumurru isila entzuten uzten ez duena, etxe aberatsaren aldaba jotzen duena. Elkartasunaren deiari harrera egitea eragozten duen paralisi espirituala da. Azpimarra egin beharrean gara alderdi horretan.
- Gipuzkoan 50.000 langabe daude, kopuru kezkagarria oso, eta bakoitzak bere drama bizi du, bere bizimodua du, bere familia, bere krisia.
- Langabezia gehien pairatzen dutenak, gure artean, egoera okerrenean daudenak dira, ahulenak eta lanik okerrenak dituztenak: etorkinak, guraso bakarreko familiak, bikote gazteak... Baita enpresa txikiak eta baliabide gutxien dituzten beren konturako langileak ere.
- Krisian gaudela esaten dugunean gauza asko izaten ditugu ahotan, eta batzuetan hain dira gai konplexuak, nekatu egiten garela hainbeste konturekin, eta aspertzeraino eta guztiarekin gogaitzeraino irits gaitezke azkenerako. Hori da gure arriskua. Ezin dugu itxaropena galdu eta etsipenean erori. Jainko-Maitasunaren misterioan sinesten dugu, Jainko horrek maite gaitu eta zaindu egiten gaitu eta adoretu egiten gaitu anaitasunaren bidezidorrean elkarrekin joan gaitezen.
- Langabezia da krisiaren adierazle argiena eta mingarriena. Langabezia da pertsonen eta familien bizitzan larritasun eta sufrimendu gehien eragiten

duen egoera. Lanik ez izatea oso larria da. Lanak duin egiten ditu pertsonak eta garatzeko aukera ematen die, lanari esker bizimodu autonomoa eta orekatua egiten dutelarik. Enpleguak familia eta pertsona gisa bizitza-proiektua askatasunean gauzatu ahal izateko gutxieneko baldintzak sortzen ditu. Alde horretatik, funtsezko eskubidea eta premia bizia da.

- Benedikto aita santuak hauxe dio “errukia egian” entziklikan: *“luzaroan lanik gabe egoteak, edota laguntza publikoaren edo pribatuaren menpe egoteak, pertsonaren askatasuna eta sormena eta haren familia- eta gizarte-harremanak murrizten ditu, eta kalte larriak eragiten arlo psikologiko eta espiritualean”* (25. zk.).
- Enplegua funtsezkoa da, bizitzeko beharrezkoak diren diru-sarreren iturria delako, baina horrez gain, harremanetarako, gizartean parte hartzeako, gizarteari ekarpena egiten ari garela sentitzeko bidea ere badelako, eta, horrenbestez, galtzen denean, kontrako eragina sortzen da, baztertuta geratzearena eta ezertarako ez dela balio sentitzearena. Hori guztia saihestu behar dugu.

## Gure kezkak

45 urtetik gora izan eta langabeziaren daudenak dira gehien kezkatzen gaituztenak. Beren kargura seme-alabak dituzten emakumeak dira gure kezka. Bai eta gazteak ere, haien langabezia-tasa %57koa baita. Pertsona asko eta asko aukerarik gabe eta ate guztiak itxita geratzen ari dira beren herrialdean, eta hala, gainbehera horretan, pertsona horien giza indarra eta indar soziala galtzen ari gara. Larritasun, gabezia eta ezkutaketa egoerak biziak diren haurrak ere gure kezka dira.

## Gure eskaintzak eta proposamenak

Harrera egiteko, informazioa emateko eta haien laneko eta ekonomia arloetako beharrizanetan orientatzeko gaude gu. Ahal den neurrian, enpleguak eskuratzeko prestakuntza eman nahi dugu, bai eta nork bere lana sortzeko laguntza ere. Balibideak ditugu, ekonomia sozialeko ekimenen bidez, lan

arloan bitartekaritza zerbitzuak eta enplegua sustatzeko zerbitzuak eskaitzeko egoera ahulean dauden pertsonei.

## Gure ondorioak

- Betiko begiekin beharrean beste era batera begiratu behar diegu langabeei: langabeek nahi dute, irrikatzen daude, eta nahiago dute lan egin gizarte-laguntzetatik bizi baino eta gizartean traba izan baino. Agerian utzi behar ditugu langabeek dituzten gaitasunak, eta merezi duten duintasuna eman behar diegu. Adorea eta itxaropena helarazi behar diegu.
- Aurrez ere esan dugun bezala, lanik gabe egoteak, izan epe laburrean edo izan luzaro, desorekatu egiten ditu langabezia jasaten duten pertsonak. Arazo ekonomikoak ekartzen ditu, berez aski larriak, eta, horrez gain, larritasuna sortzen du eta egoera emozionalean eta norberaren buruarekiko estimuan eragiten du. Eta, askotan, familiako gatazkak sortzen ditu behin eta berriro.
- Garaiotan enplegua sortzea zeregin nekeza da. Enpresa txiki eta ertainek osatutako enpresa-sarearen zati handi bat desagertu egin da eta kontsumoak atzeraka egin du, eta, horren ondorioz, zaila da, banaka nahiz modu kolektiboan, autoenplegua sortzeko ekimenak bultzatzea. Ekintzaileak, enpresariak eta gaitasuna eta ekimena duten pertsonak hauspotu behar ditugu, krisi sozialeko egoera honetan egokiak izan daitezkeen ekonomia sozialeko formulak bultza ditzaten.
- gaitu Jainkoaren seme-alabaren duintasunean sufritzen ari direnei laguntzera, norbera baino okerrago dauden hainbeste lagunen bizitza urratuari begiratzen dion anaia-arrebaren ikuspegitik eta arazorik larrienak gainditzen laguntzeko premiaren kontzientzia harturik, horren guztiaren bidez sakramentu aldetik Eukaristian gauzatutako anaitasuna lortze aldera. Jar gaitezen Jainkoaren aurrean eta entzun dezagun lan egin nahi duten baina ezin duten horien guztien aldarria.

## **FEDEDUNEN OTOITZA**

**Egin diezaiogun otoitz Aita betierekoari, gaur bereziki Caritasek proposatutako langabeziaren arazoari aurre egiteko.**

- Eliza osoaren alde, Jesusen jarraitzaile leialen, Frantzisko aita santuaren, Jose Ignacio gure gotzainaren, apaizen, diakono, erlijioso, misiolari, haien laguntzaile eta gure komunitate eta zerbitzuetako arduradun guztien alde. *Eska diezaiogun Jaunari.*
- Lan egonkorra eta duina ez aurkitzeko ziurgabetasunean bizi diren gazteen alde; arazo ekonomikoak direla-eta ezkondu ezin duten bikoteen alde eta luzaro langabezian egotearen ondorioak jasaten ari diren guztien alde. *Eska diezaiogun Jaunari.*
- Gipuzkoan era batera edo bestera Caritasen zerbitzuetan laguntzen duten guztien alde. Boluntario, langile, ongile eta guregana hurbiltzen diren hainbeste jenderen arazoak eta beharrizanak hurbileko sentitzen dituzten guztien alde. *Eska diezaiogun Jaunari.*
- Hemen gauden guzion alde, gure familia, lagun eta lankideen alde. Harrera egingo diegula eta haien eskubideak eta beharrizanak errespetatuko ditugula jakinik beldurrik eta konplexurik gabe guregana lasai hurbil daitezkeela dakitenen alde. *Eska diezaiogun Jaunari.*

**Entzun, Aita, gure otoitza. Egin gaitzazu eskuzabal gure ondasunak eta bizitzak elkarbanatzekoan. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.**

## ***DIRU-BILKETA***

Gaur bildutako dirua langabeziaren makurrak arintzeko erabiliko du Caritasek.

## ***BAKEA***

Gure bakea Jesus Jaunarena da, egiaren, askatasunaren, barkamenaren eta maitasunaren alde hil baitzen bera. Modu bidegabean bazterketa eta premia gorria jasaten ari diren guztiekin bat egiten dugu guztiok bake horretan. Bakea eman diezaiogun elkarri, bizitza berri baterako konpromiso gisa

## ***AGURRA***

Jainkoaren maitasuna txiroekin eta babesgabeekin elkarbanatzeko prest, anaia-arrebok, joan zaitezte bakean.